

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Migel Ansa Goenaga

*Andoain,
Gipuzkoa
(1937)*

Aurkibidea



Biografia



Andoaingo Upategi baserrian jaio zen 15 senideko familian. Aita Andoaingo zuten eta ama Urnietako Oiamar baserrikoa. Beren baserria Urnietarekin mugan egonik, amaren baserriko familiarekin denbora asko pasatzen zuten, eta Urnietan beste enkargu batzuk ere egiten zituzten. Aita itzaina zen eta ondoko fabrikako materiala eramaten eta ekartzen egiten zuen lan. Ama, berriz, Donostiara joaten zen esnea saltzera. 14 urterekin Labordenean lanean aritu bazen ere, Upategin bertan tailerra jarri zuen bere kontura, eta bertan egin zuen lan bolada luzez.

Zintak

AND-063

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-11-24
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

AND-064

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-11-24
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Urnietako eta Andoaingo euskararen arteko aldeak

- **Erref:** AND-063/002
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:00:41. **Bukatu:** 00:01:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Aita Andoaingoa zuen; eta ama, Urnietako Oiamar baserrikoa. Urnieta eta Andoaingo euskararen arteko aldeak aipatzen ditu.</p>

Transkripzioa

- Eta, ba, aita etxekua gendun eta ama Urnietako auzoko Oiamarkua. Zeatikan auzoa itten da Andoain ta Urnietakin gure basarri hoi.
- Oso mugan dago, ezta?
- Bai, oso ondun. Berton. Gu Andoainguak eta haik Urnietarrak. Eta, gaur egundu naiz gogoratzen, hitz batzuk bazittuen diferentiak. Adibidez, garuana. Andoainen “garua” esaten deu ta Urnietan “iñixtorra”.
- Hara!
- Bai, beti “iñixtorretaa”, ta “iñixtorretaa” ta guk “garotaa”. Eta ondokuak giñan, e! Juxtu muga tartia gendun. Eta hoi oso... Beste hitz batzuk ´e bai. Txorin izenak-eta ´re bazian diferente esaten ziyenak. Guk “etxolarra” esaten geniyona, haik “burloiak” esaten ziyen. Karo, nik lehengusukin asko tratatu nun, nere edadekuak zian. Eta... Bai. Hoi da ze diferentzi daon. Eta Urnietan badao oain e, elkarte bat “Inixtorra” jartzen diena. Bereziya da Urnietan esaten dan hitz hoi, ikusten danez. Bai.
- Eta zuen ama, ordun, ondoko baserri batekua?
- Auzoko Urnietako Oiamarkua, bai.
- Oiamarkua.

2. Oilaskoak zikiratzera eramatean pasatako estutasunak

- **Erref:** AND-063/003
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:01:59. **Bukatu:** 00:02:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Migelek oilaskoak eramaten zituen zikiratzera, eta han adarra jotzen zioten. Hango emakumea, Mikela, oso jatorra zen.</p>

Transkripzioa

- Ba al zenuen Urnietakin bestelako tratuik? Aman etxea jutiaz gaiñea...
- Bai, bai. Ba, esango dizut detalle polit bat. Lehengo batian aitu nitzan [kontu] hoi esaten, ta azkenian penakin geatu nitzan ezautu gabia. Urnietako Bentan taberna zan, oain itxi due, eta nik eamaten nittun oillaskuak zikiatzea, kapoiak itteko. Kapoiak itteko oillaskuak zikiatu itten dia. Eta hango andriak zikiatzen emen zittuela. Eta han bazan neskazahar bat... Bueno, neskazaharra... geo neskazaharra izan zan, baiño nik... juten nitzanian ni mutil koxkorra, hamabi urte o... hamar-hamabi urtekua, ta beak izango zittun hoge-hogeita bi. Ni baiño hamar bat urte gehio o hola zittun. Eta aber nahi al nun ni zikiatzea, beak esaten zian. Joe! Nik pasatzen niñun apuruak! Ni orduako konturatuba neon zikiatzia zer zan. Geo hua oso neska maja zan, Mikela.

3. Urnietara enkarguak egitera, gustura

- **Erref:** AND-063/005
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:04:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

<p>Urnietan asko ibili izan da Migel; hara joaten zen enkarguak egitera, eta gustura joaten zen, bizikletaz: Zaundegira, jostunengana, idiak ferratzera...</p>

Transkripzioa

- Ni Urnietara... Urnietara gu bastante ibili gea, enkargutaa Zaundegia. Zaundegi, badakizu. Ni harea txerriya hiltzen [giñan] bakoitzian. Ni bizikletan ibiltzeatik gustora juten nitzan, ta amak enkargua ematen zian, zea, espezien bila, oolkik-eta itteko espezien bila. Ta ni Zaundegia. Taberna zahar bat, erdi denda, hola zan. Eta enakargu asko Urnietan. Gero erropak ´e, gure amak lagunak zittun jostunak Urnietakuak eta erropa ´re asko itten zan. Ta ni bizikletan ibiltzeatik gustora ta, joe, ni enkargu asko iña naiz Urnietan. Askok! Gero txerri munik ematea, zeatikan txerriya hiltzen ziguna ´re urnietarra gendun, Jazinto ta hoin aitta. Jazinto Fernandezek aitta zan. Eta... ni Urnietan asko ibiliya naiz. Bai, bai. Gero gaztetan neskatan ´e bai ta! Beti Urnietan!

- Ordun, Andoainguak izanagatik...

- Bai, Urnietan tratua izandu deu. Eta hamabi urtekin eo hola gutxi gorabehera gero Urnietan asko pasatzen nitzan ni baita ere... bueno, perratzea idiyak eamaten ´e bakarrik ´e jun izandu nitzan. Geroxio hua, e! Hua hamalau o hamabost urtekin. Jun izandu nitzan.

4. Zalgurdian gustura, kotxea balitz bezala

- **Erref:** AND-063/006
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:04:53. **Bukatu:** 00:05:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>12 urte exkax zituela, txerrikumeak eramaten zituen Hernaniko feriara. Garai hartan, zaldiarekin eta gurdiaekin ibiltzea zoramena zen Migelentzat, asko gustatzen zitzaion.</p>

Transkripzioa

- Baiño hamabi urte o asko [gehio] gabe txerrikumiak Hernania feria ematen nittun nik. Zaldiya ta gurdin. Bueno, zaldiya ta karrua esaten geniyon, baiño oain euskeraz [...] due “gurdiya”, karruai “gurdiya” esaten die. Hoi beste batek ´e hoi jarri zian. Ta nik zaldiyakin ta hola ibiltzeatik ikeragarritzko... Nik badirudi ordun karneta bezela nuala. Ni zaldiyakin ibiltzia ta zea, gurdiaekin txerriik-eta ibiltzia-ta neretzat zan zoramena.

Gurasok juten zian... gurason bat jungo zan trenian tratua ittea, baiño ni oiñez bakar-bakarrik hamabi urteako. O lehenau igual, e! Juten nitzan ni Hernania, txerrikumiak, hamar bat txerrikume hartu karruan, tapatuta jartzen gendun, eta ni gustora juten nitzan! Esaten dizut, ba. Eta Urnietatik...

- Ta oiñez zu zaldiyai tiraka.

- E?

- Oiñez, zu zeorrek.

- Klaro! Ni oiñez, klaro! Ni lurretik, lurretik. Hua dana itxiya ta han txerrikumiak barrenen.

5. Errazionamenduko olio jasotzean, purrustadak

- **Erref:** AND-063/007
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:07:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Zalgurdiarekin asko ibilitakoa da Migel, baita kalera joateko ere. Errazionamenduko jeneroa jasotzean, olio asko tokatzen zitzaien, senide asko zirelako etxean; eta herriko emakumeak purrustaka egoten ziren, dena eramango zuen beldurrez. Gerra ostean, olio gutxiago zegoenean, txerriaren gantza erabiltzen zuten sukaldean aritzeko.</p>

Transkripzioa

- Eta ni zaldi-karruakin —zaldi-karrua o gurdiya o dalako horrekin—asko ibiliya naiz. Kalea're enkargutaa're bai. Enkargutaa're etorri Kaletxikia ta Kaletxikin kooperatiban garai hartan, rasionamentua zan garaiyan-ta, joe, ni gogoratzen naiz andriak, hola... oliyua ematen zigun, ta gu asko giñan ta oliyo asko tokatzen zitzaigun guri. Eta: "Danak honek eamango dizkiu! Mutil koxkor hau...! Honek danak eamango dizkiu! Gutzat ez da izango!", ta esaten ziyaen kooperatibakuak: "Lasai, lasai, honek tokatzen dana bakarra eamango du ta. Tokatzen zaiyona. Asko dia hok eta". Osea, nik hoi, gerra ondoko urte gogor hoik, asko ezautu dittut. Asko, asko bizittu naiz.

- Ordun kartilla o izango zenduen...

- Bai, kartilla. Ta tokatzen zan honbeste litro familiko. Honbeste giñan ta honbeste. Bai, bai, dana legezkoa zan. Baiño jendiak ordun zakan bildurrakin "oliyua gutzat ez da izango" iñez ta. Joee.

- Oliyoik gabeko urte hoik-eta nolakuak izandu zian?

- Ez dakit, oliyua bazan. Nik ez det ezautu oliyoik gabekua. Oliyua gure etxian izaten zan. Gero txerriyan zeakin, gantzakin, o txerriyan mantekakin ta nolabaitt hola moldatzen zian. Basarrietan ez zan problemik izaten; nik uste det ez zala... Kalian izango zian problemak. Izango zian, bai.

6. "Terrible" zaldia

- **Erref:** AND-063/008
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:07:08. **Bukatu:** 00:08:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Gerra ostean, errotara joan izan zen zalgurdiarekin. Zaldi ospetsua zen beraiena: "Terrible" zuen izena, Errioxatik ekarritakoa.</p>

Transkripzioa

- Ta geo, bai, errota... hemen Kaletxikin errota bat bazan, ta harea´re zaldiyakin´e etorri izandu nitzan gaztetan. Gero ya bizikletan remolkia gendun. Gero zaldiya gaizkittu zan ta saldu geniyon ta... Zaldi famosua izandu gendun oso.
- A bai, e?
- Bai, [...] zaldiya.
- Zer zan ba zaldi hoi?
- Zaldi harek? Ba, zan bereziya. Terrible zun izena.
- Terrible?
- Badakizu zergatik? Riojanua baizan. Ta Riojatic ekarri zun izena: Terrible. Ta gure etxen, geo, hemen pariente batzuk ekarri zuen fruta partitzeko Andoainen. Eta geo gure baserria ekarri zuen ta guk zaldiya bihar gendun ta... Oso famosua izan zan. Terrible. Bai. Riojanuak zian gure parientiakin ezkonduakuak.
- Baiño Terrible zer dela ta? Zer zan, gaixto xamarra o...?
- Ez, oso ona. Oso umilla ta jatorra zan zaldi hoi. Ez dakit zergatik. Riojatic ekarriya izan bihar zun. Eta guk ez geniyon deitzen Terrible, baiño beak etortzen zianian ikustea-ta "Terrible!" ta deika ta han ibiltzen zian.
- Zer zen eskutik haziya eo hola?
- Ez dakit. Ez dakit. Oso ona zan. Pinttua, beltxa ta txuriyakin, ta oso politta.

7. 9 urte zituenerako, zalgurdiarekin enkarguak egiten

- **Erref:** AND-063/009
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:08:24. **Bukatu:** 00:10:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

Hernaniko feriara txerriak saltzera joan zen umetan, behin baino gehiagotan. 9 urte zituenerako, zalgurdiarekin ibiltzen zen hara eta hona. Enkarguak egitera gustura joaten zen Migel. 15 senidetan 8.a izanda, senide zaharragoen eta gazteagoen enkarguak izaten zituen.

8. Lehengo zalgurdi dotoreak

- **Erref:** AND-063/010
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:10:26. **Bukatu:** 00:12:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

Migel askotan eta gustura ibiltzen zen zalgurdian. Zalgurdi hura nolakoa zen azaltzen du. Lehen baziren gurdi dotoreak, eta Migelek gogoan du nolakoak izaten ziren, eta nondik nora ibiltzen ziren.

9. Uztarriak lotzeko prozesua

- **Erref:** AND-063/011
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:12:20. **Bukatu:** 00:15:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Baserrian, lan asko egoten zen. Idiak erabiltzen zituzten uztarriei lotuta, soroan lan egiteko. 15 urte zituenerako, idiak berak bakarrik lotzen zekien Migelek. Uztarria nola lotzen zuten azaltzen du. Hemengo uztarriak oso landuak izaten ziren.

10. Idia gurdiari lotzen

- **Erref:** AND-063/012
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:15:49. **Bukatu:** 00:17:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Idiei uztarria lotzean, gurdiarekin nola lotzen zuten azaltzen du. Ataunen ez zuten gurdirik erabiltzen, bide txarrak baitzeuden.

11. Leraren ezaugarriak eta erabilerak

- **Erref:** AND-063/013
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:17:14. **Bukatu:** 00:18:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

Lerak erabiltzen zituzten zenbait lanetarako. Leraren ezaugarriak eta egitura aipatzen ditu.

12. Gurdiaren atalak

- **Erref:** AND-063/014

- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:18:21. **Bukatu:** 00:20:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

Gurdiaren atalak aipatzen ditu: pertikak, gorputza, kaxak, tantaia, ezpata...

13. Etxe txikiegia horrenbeste lagun eta lanetarako

- **Erref:** AND-063/015
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:20:03. **Bukatu:** 00:21:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Belarretan asko ibilitakoak dira beraiek etxean. Ganadu dexente zuten garai hartarako. Ganbaran toki gutxi zeukaten, baina moldatzen ziren. 25 urtera arte aritu zen baserrian lanean.

14. Ur bila joan behar zuteneko komeriak

- **Erref:** AND-063/016
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:21:18. **Bukatu:** 00:23:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Umetan jolas gutxi egin zuen. Ur bila iturrira joatean, baldeak etxera nola ekartzen zituzten azaltzen du. Orduko ontziak. Askok zirenez, askotan ekarri behar izaten zuten ura. Ura zertarako erabiltzen zuten.

15. Dutxarik ez zeneko garaiak

- **Erref:** AND-063/017
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:23:28. **Bukatu:** 00:24:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Norbere burua garbitzeko, ez zuten dutxarik. Nola-hala moldatzen ziren, zikintzen zirenean garbitzeko. Dutxa jarri zutenean, ohiturak aldatu ziren.

16. Oilasko zikiratuen salmenta

- **Erref:** AND-063/018

- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:24:53. **Bukatu:** 00:27:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Oilaskoak zikiratu egiten zituzten, kapoiak saltzeko. Izan ere, etxeko nagusiari errenta ordaintzean, kapoiak ematen zitzaizkionez, Migelen amak kapoien salmenta antolatu zuen. Oilaskoak nola zikiratzen ziren azaltzen du: ebakia egin, zauria josi, baratxuria sartu barrena desinfektatzeko...

17. Amaren opari txikiekin, pozez zoratzten

- **Erref:** AND-063/019
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:27:25. **Bukatu:** 00:28:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Eguberrietan, amak opari txikiak ekartzen zizkien; eta beraiei ilusio izugarria egiten zien horrek, poz-pozik egoten ziren. Migelek gogoan du behin eskopeta txiki bat oparitu ziotenekoa.

18. Gabon gaueko kantak baserriz baserri

- **Erref:** AND-063/020
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:28:35. **Bukatu:** 00:32:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Lehengo Gabonak beste era batekoak ziren. Egunez kantu gutxi entzuten zen. Gauez, ordea, baserrietan, etxez etxe ibiltzen ziren musika jotzen eta kantuan; horrela, xox batzuk atera, eta majo jaten zuten. Hurrengo goizean, baina, seiatarako mezara joaten ziren. Jendeak harrera ona egiten zieten baserrietan. Erlijioari esker, diziplina izaten zutela uste du Migelek.

19. Gabonetako afariko menua

- **Erref:** AND-063/022
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:33:21. **Bukatu:** 00:35:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Gabonetan, bisigua eta turroia jaten zuten etxean. Behin, bisiguari osagairen bat falta zitzaionekoa gogoan du. Helduek kafea eta kopa edaten zuten.

20. Gabonetako kantu-ibilbidea

- **Erref:** AND-063/023
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:35:01. **Bukatu:** 00:38:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Gabon gauean, afaldu ostean, kantura ateratzen ziren, baserriz baserri. Orduko ibilbidea gogoan du; baserrien izenak aipatzen ditu.

21. Eguberri eguneko ohiturak

- **Erref:** AND-063/025
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:39:06. **Bukatu:** 00:40:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Eguberri egunean, goizeko seietan mezara joaten ziren, gaua baserriz baserri kantuan eman ostean. Gero, lotara joaten ziren, eta esnatzerakoan, erdi erotuta sentitzen zen, horrenbeste trikiti entzun ostean. Bazkaldu, eta festara joaten ziren. Hirubiden egiten ziren bilerak, eta non zegoen azaltzen du. Oialumera ere joaten ziren.

22. Inuxente eguneko giroa

- **Erref:** AND-063/026
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:40:48. **Bukatu:** 00:42:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Gabonetan, Inuxente eguna ospatzen zuten. Kalekoek inuxentekeria ugari egiten zituzten; baina beraiek, baserrian, ez zuten giro hori horrenbeste nabaritzen. Behin aitonak egin zien inuxentekeria kontatzen du.

23. Santa Agedako ohitura berreskuratu zutenak

- **Erref:** AND-063/028
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:43:48. **Bukatu:** 00:44:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

Santa Agedatan, baserriz baserri ibili ziren urte batean, kintoak zirelako. Beraiek berreskuratu zuten ohitura hura, urte askoan utzita egon zena.

24. Errege eguneko ilusioa eta ohiturak

- **Erref:** AND-063/029
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:44:47. **Bukatu:** 00:46:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Errege egunean, zapata jartzen zuten, ilusioz beteta. Opariren bat izaten zuten orduan. Lehen, Olentzero ez zen ospatzen.

25. Kanpai motak

- **Erref:** AND-063/034
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:49:03. **Bukatu:** 00:50:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:

Gauetz, goizeko seiak aldera, ezkilak jotzen zituzten. Inor hiltzen zenean, agonia-kanpaiak jotzen zituzten. Eguerdian, 12etan, kanpaiak jotzen zituzten.

26. Erreguteetako ohiturak

- **Erref:** AND-063/036
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:51:18. **Bukatu:** 00:52:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Erreguteei buruz hitz egiten du: lehorra zenean, euria egin zezan egiten ziren; kanpaiak jotzen ziren orduan. Orduko kankak gogoan ditu.

27. Sua zeneko kanpaiak

- **Erref:** AND-063/037
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:52:23. **Bukatu:** 00:53:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:

Sua zenean, kanpaiak jotzen ziren. Gogoan du haien hotsa. Alarma sortzen zuen horrek, eta denak sua nondik zetorren begiratzen hasten zen.

28. Aste Santuko zeremonia Andoainen

- **Erref:** AND-063/040
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:55:47. **Bukatu:** 00:57:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:

Aste Santuko prozesioan, Andoaingo bandak jotzen zuen hileta-martxa, eta horrek errespetua sartzten zuen. Orduan, Guardia Zibilek galako janzkera eramaten zuten, fusilak behera begira jarrita. Zeremonia serioa zen hura. Emakumeak atzean joaten ziren lehen.

29. Lehen, emakumerik ez tabernetan

- **Erref:** AND-063/041
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:57:50. **Bukatu:** 00:58:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeak lehen ez ziren sartzten tabernetan. Mutilei, ordea, gizarteak baimena ematen zien tabernetan sartzeko, 14-15 urte zituztenez geroztik.

30. Tabakoaren bilakaera emakumeen artean

- **Erref:** AND-063/042
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:58:50. **Bukatu:** 01:00:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

Beraien garaian, emakumeek ez zuten zigarrorik erretzen; jauntxoek emazteek bakarrik. Lehenagoko garaietan, ordea, Migelen amonak pipa erretzen omen zuen. Tabakoa etxean egiten zuten; zintzilik ganbaran lehortu; eta gero saldu.

31. Hezkuntza kontuak

- **Erref:** AND-064/001
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Umetan, mojen eskolan ibili zen eskolan. Arreba zaharragoek eramaten zuten eskolara. Handik, La Salle eskolara pasatu zen; 14 urtera arte ibili zen bertan. 14 urterekin, Labordeneko lantegian sartu zen mekanikako "aprendiz" moduan. Bederatzi urte egin zituen lantegi horretan. Beste lantegi batean ere aritu zen lanean.

32. La Sallen eta Laborden ibilia

- **Erref:** AND-064/003
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:02:26. **Bukatu:** 00:03:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

La Sallen eta Laborden ibili zen Migel. La Sallen eta Laborden ibiltzen zirenak herriko "flor y nata" zirela dio, baina bera ez omen zen "flor y nata". Labordeneko bulegarien eta lantegiko jendearen artean bereizketa egiten du.

33. Labordeneko koru, txistulari eta dantzariak

- **Erref:** AND-064/005
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:05:35. **Bukatu:** 00:06:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Laborde lantegian "kultura asko sartu" zutela dio Migelek. Laber eta Lorea koruak, txistulariak eta dantza taldea zituen. Bi-hiru urtean Gabonetan kantuan atera zen Migel diru-eskean.

34. Laborde: kultura mekanika baino gehiago

- **Erref:** AND-064/006
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:06:49. **Bukatu:** 00:08:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Laborde lantegiari buruzko azalpenak. Migelen ustez kultura gehiago erakusten zen mekanika baino. Mekanika gehiegi erakutsiz gero, langileek lantegitik alde egiten zutela dio. Laborden jornal baxuak egoten ziren. "Ciencias naturales". Animaliak disekatzen irakasten zuten. Behiak sariketetara aurkezten zituzten.

35. Industriaren bilakaera

- **Erref:** AND-064/008
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:09:41. **Bukatu:** 00:10:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Laborde lantegiari buruz hitz egiten du. 500 langile zeuden lantegian, baina makinaria zaharkitua gelditu zen. Laminazioa jarri zuten, baina asko kostatu zitzaion hura martxan jartzea.

36. Zailtasunak Laborde lantegian

- **Erref:** AND-064/010
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:11:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Laborde lantegiari buruz hitz egiten du. Laminazioa jartzeko saiakeran, galera handia izan zuten. Lantegia langileei oparitu ziela dio.

37. 100 kiloko irin-zakuak, garo azpian

- **Erref:** AND-064/011
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:11:01. **Bukatu:** 00:13:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Etxean 100 kiloko irin-zakuak gordeta edukitzen zituzten. Hernanin bazen "harinera" bat, eta hango laborako harria Nafarroatik eramaten zuten. Harri tartean, 100 kiloko irin-zakuak ekartzen zituzten. Txoferrak abisua jasotzen bazuen kontrolen bat zegoela, irin-zakuak Upategin gordetzen zituzten garo azpian.

38. Osaba bat gerran hil

- **Erref:** AND-064/012
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:13:05. **Bukatu:** 00:15:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Migelen bost osaba gerran ibili ziren. Haietan gazteena, errepublikano-abertzaleekin boluntario joan zen eta Anboto aldean hil zuten. Beste bi osaba Donostia defenditzen ibili ziren. Eta beste bi osaba, berriz, etxean geratu ziren baino frankistek eraman zituzten gero.

39. "Gora Euskadi, Jaungoikoa eta lege zaharra"

- **Erref:** AND-064/014
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:16:32. **Bukatu:** 00:17:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Gerraosteko giroaz hitz egiten du. Igandetan, La Salleko apaizekin mezara joaten ziren. Etxera bueltan, errepidean idatzita ikusi zuen: "Gora Euskadi, Jaungoikoa eta lege zaharra". Arrebak gerrari buruz esaten zituenak.

40. Buruntzako gurutze puntan ikurrina

- **Erref:** AND-064/015
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:17:26. **Bukatu:** 00:19:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

15 urte inguru zituela, San Roke egun batez Urrietako bi lehengusurekin Buruntzara joan zeneko pasadizoa. Buruntzako gurutzearen puntan ikurrina zegoen jarrita. Ikurrina debekatuta zegoen orduan. Guardia zibilek agindua eman zuten ikurrina kentzeko.

41. Ikurrina eta propaganda politikoa

- **Erref:** AND-064/016
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:19:13. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Frankismo garaia du hizpide. Ikurrina eta propaganda politikoa ezkutuan gorde beharra. EGI eta ETaren propagandak.

42. Euskara eskolan eta elizan

- **Erref:** AND-064/017
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:21:10. **Bukatu:** 00:22:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Mojen eskolan, erdaraz egiten zuten mojak euskaldunak izan arren. Mojek zerbait galdetu eta erdaraz ez bazekiten, "kriston egurra" jasotzen zuten. Hitz bat bera ere ezin zuten egin euskaraz. La Sallen ere maisuek ez zuten euskaraz egiten. La Salleko dotrina eta elizakoa euskaraz ikasteko aukera zegoen. 10 lagunek bakarrik egin zuten komunio handia euskaraz.</p>

43. Kantu frankistak, eskolan

- **Erref:** AND-064/018
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:22:35. **Bukatu:** 00:23:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Mojen eskolan, 'Cara al Sol' eta 'Viva España' kantatzen zuten.

44. Agur faszista egiteari utzi

- **Erref:** AND-064/019
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:23:10. **Bukatu:** 00:24:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

La Salle eskolan, eskolako zuzendaria gelan sartzen zenean eskuineko besoa altxatu (agur faszista) eta "Ave Maria Purísima" esan behar izaten zuten. Zuzendari berriak, ordea, agindua eman zuen besoa gehiago ez altxatzeko.

45. Euzkadi irratia

- **Erref:** AND-064/020
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:24:53. **Bukatu:** 00:26:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Iluntzetan, anaia zaharrenaren etxera joaten zen Euzkadi irratia entzutera. Venezuelatik emititzen zuten irratia.

46. 1966an Urbian bizitakoa

- **Erref:** AND-064/021
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:26:13. **Bukatu:** 00:28:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Diktadura garaiko kontuak. Mixel Labegerieren kantak hasi ziren modan jartzen. Urriko aurreneko igandean mendizaleen eguna ospatzen zen Urbian. Euskal giroko festa. Euskal kantak abestu zituzten. Hernaniko gudari batek altxatu zuen ikurrina. Jendeak ikurrinak atera zituen.

47. Euskara elizan

- **Erref:** AND-064/022
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:28:55. **Bukatu:** 00:29:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Diktadura garaian, euskaraz egitea debekatuta zegoen. Elizan ere latina zen nagusi: Aita Gurea, arrosarioa eta sermoi batzuk izaten ziren euskaraz.

48. Erretoreari hika egiten zion laguna

- **Erref:** AND-064/025
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:30:23. **Bukatu:** 00:31:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Ikaskide gehienak euskaldunak ziren Labordenean. Lagun artean euskara ikasi zuen mutil bati buruz hitz egiten du: mutiko hark erretoreari ere hika egiten zion (ikasten ari baitzen). Besteek, ordea, apaizari berorika hitz egiten behar izaten zien.

49. Erretoreari, medikuari eta gurasoei berorika

- **Erref:** AND-064/026
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:31:56. **Bukatu:** 00:34:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

Herriko erretoreari eta medikuari berorika hitz egin behar izaten zitzaien. Apaizarekin gurutzatuz gero, agurtzerakoan txapela altxa behar izaten zen. Migelek gurasoei berorika hitz egiten zien.

50. Hika, lagun artean eta anai-arrebekin

- **Erref:** AND-064/027
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:34:00. **Bukatu:** 00:35:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Anai-arreben artean hika hitz egiten zuten. Gurasoei, berriz, berorika. Lagun artean ere hika egiten zuten. Koinatu-koinatei, berriz, zuka. Soldadutzako pasadizo bat kontatzen du.

51. Txori-habiak ateratzen eta perretxikotan

- **Erref:** AND-064/030
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:36:50. **Bukatu:** 00:37:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Pareta zuloetatik txori-habiak ateratzen ibiltzen zen. Txoriei amorrua zien, gari soroetan kalteak eragiten zituztelako. Perretxikotara ere joaten zen lehengusuekin.

52. Umetako gaiztakeriak

- **Erref:** AND-064/031
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:37:54. **Bukatu:** 00:40:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Eskolatik etxerakoan, ahuntz bati harrika aritzen ziren mutikoak. Errietak. Olamiako ziznei ere harri botatzen ibiltzen ziren.

53. Eskolatik ateratakoan, pilotan

- **Erref:** AND-064/032
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:40:05. **Bukatu:** 00:41:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Eskolatik ateratakoan, pilotan jolasean gelditzen zen Migel. Aitonak auzoko beste mutikoak etxera noiz joaten ziren ondo jakiten zuen. Errietak. Etxeko neskek formalago portatu behar izaten zuten. Nesken eta mutil arteko desberdintasuna heziketan.

54. Soldaduek etxea miatu

- **Erref:** AND-064/034
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:41:56. **Bukatu:** 00:44:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra hasierako kontuak. Frontea Buruntzan egon zeneko azalpenak. Bonbardeo edo tiroak sumatzen zituztenean, etxeko sagardotegian gordetzen ziren. Soldadu batek etxea miatu zueneko kontaketa du. Idiekin bi bandoetako soldaduentzako materiala garraiatzen ibili zen Migelen osaba bat.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com